



## "Beste ekonomia bat martxan dago" IV. jardunaldiak

2017ko maiatzaren 5a eta 6a

La Corrala, Calle de Carlos Arniches, 3, 28005 Madrid

[Mapa](#)

### Ikasleentzako gida

#### **Norentzat**

Jardunaldiak ekonomialarientzat eta etorkizuneko ekonomialarientzat dira bereziki, baina edozein pertsona joan daiteke.

Guztira 119 pertsonak parte hartu ahal izango dute aurrez aurre, eta plaza horietako 80 unibertsitateko ikasleentzat soilik izango dira.

UNED izapideak egiten ari da, jardunaldietan parte hartzeagatik aukera askeko 3 kreditu edo 1,5 ETCS kreditu eman daitezten. UNEDeko kredituek eta beste edozein unibertsitate publikotan emandakoek balio berbera dute, baliozkotu behar izanez gero.

Gida hau kredituak baliozkotzea eskatu nahi duten ikasleentzat da, eta/edo, jardunaldietan parte hartzearen, joan-etorriak eta ostatu-gastuak finantzatzeko bekak eskatu nahi dituzten ikasleentzat ere bai.

#### **Izena emateko bete beharrekoak**

**Plaza-kopurua mugatua denez, baldintza hauek betetzen dituzten ikasleak hautatuko dira, lehentasunez:**

- Unibertsitateko ikasketen azken urtean matrikulatuta egotea edo jardunaldi hauetako gaiekin zerikusia duten graduondoko ikasketak egiten aritzea.
- Kontuan hartuko da gizarte-mugimenduren batean, ikasle-elkarteren batean, gazte-elkarteren batean, auzo-elkarteren batean edo antzekoren batean sartuta egotea edo egon izana.
- Izen-emateen hurrenkera.

#### **Kredituak lortzeko bete beharrekoak**

Kredituak emateko izapideak UNEDek egingo ditu. Jardunaldiak amaitzen direnean eta behar diren baldintza guztiak betetzen direla egiaztatzen denean, UNEDek ziurtagiri bat emango die parte-hartzaileei.

**Kredituak lortzeko bete beharrekoak hauek dira:**

#### **1. Jardunaldietara joatea (10 ordu)**

Jardunaldien % 100era joatea maiatzaren 5ean eta 6an. Jardunaldietara joan izana ziurtatzeko, bertaratu izanaren kontrol-orri bat erabiliko da. Orri horretan sinatu beharko dute ikasle guztiek jardunaldietako atal bakoitza amaitzen denean.

#### **2. Egin beharreko lanak (20 ordu):**

Kalkuluaren arabera, jardunaldiekin lotutako lan guztiak 20 ordu eskatuko ditu. Jardunaldien aurretiko lana egitea derrigorrezkoa da. Proposatzen diren gainerako zereginetatik, gutxienez bat hautatu beharko da. Zeregin hauek proposatzen dira:

### **Derrigorrezko lana**

**Jardunaldiak hasi aurreko lana:** lan hau banaka egin behar da.

- Mahai-inguruetan eta hitzaldietan parte hartuko duten hizlariak argitaratutako artikulua aurretik irakurtzea. Postaz bidaliko zaizkie parte-hartzaileei edo jardunaldien webgunean eskegita egongo dira.

### **Lan hauetatik, gutxienez bat aukeratu behar da:**

**Jardunaldiak hasi aurreko lana:** lan hau taldeka egingo da.

- Jardunaldietako eztabaidaguneetan hizlariak egiteko galderak prestatzea.
- MgEk badu saio bat irratian. Aukeratutako hizlari batentzako elkarrizketa bat prestatuko da, ondoren irratian emateko.

**Jardunaldietan zehar egin beharreko lana:** lan hau banaka egin behar da.

- Eztabaidarako galderak prestatzea, aurretik aukeratu diren hizlariak egiteko.
- Aukeratutako hizlariari elkarrizketa egitea
- Tuiteatzea eta Facebooken mezuak jartzea (sare-protokolo bat bidaliko da)

### **Jardunaldien ondorengo azken lana**

Jardunaldiak amaitu ondoren, behean proposatzen diren gaiak lantzeko beharrezkotzat jotzen den denbora emango da. Jardunaldien ondoren egin beharreko azken lanetarako, epemuga jarriko da, eta lanak posta elektronikoz helbide honetara bidali beharko dira: [educacion@ecosfron.org](mailto:educacion@ecosfron.org)

### **GARRANTZITSUA. Adierazi mezuaren gaia: Beste ekonomia bat martxan dago jardunaldietako azken lana + izen-abizenak**

Hautatu proposatutako ildo hauetako bat:

- Mezu bat idaztea, jardunaldietako blogean argitaratzeko, eta jardunaldietan landutako gaiak eta haiek 2030 garapen-agendarekin duten loturari buruzko hausnarketa egiteko. Jardunaldiei buruzko mezu bat izan daiteke, edo ponentzia jakin bati buruzkoa. Mezua zer ponentziari buruz egin nahi den hautatu behar da, eta izen-emateen hurrenkeraren arabera egingo dira esleipenak.
- Gehienez ere 3 minutuko bideo bat grabatzea, jardunaldiei buruzko eta nabarmendu beharreko gauzei buruzko iritzi pertsonala emateko (garrantzitsuenak iruditzen zaizkizun ideiak). Bideoa zer ponentziari buruz egin nahi den hautatu behar da, eta izen-emateen hurrenkeraren arabera egingo dira esleipenak. Lan hau taldeka egin daiteke. Horrela eginez gero, taldekideak zein diren adierazi behar da.

### **Joan-etorriak eta ostatu-gastuak finantzatzeko beka eskatu nahi izanez gero bete behar diren baldintzak**

- Espainiako edozein udalerritan bizitzea, Madrilgo Erkidegotik kanpo.
- Jardunaldietan izena ematea eta MgEk izen-emate hori onartzea (ikus onarpen-irizpideak aurreko atalean).

Mugarik gabeko Ekonomilariak Hauek finantzatzen dute

- MgEk ikasleari jardunaldietan ofizialki izena emanda dagoela jakinarazten dionean, ikasleak **motibazio-gutun bat** bidali beharko dio MgEri, jardunaldi hauetan zergatik parte hartu nahi duen azaltzeko. Posta elektronikoz jakinaraziko zaie onartuei gutun hori bidaltzeko epea, haien izen-ematea ofizialki onartu dela jakinarazi eta gero. Gutunak ezin ditu 1500 hitz baino gehiago izan, lerroartek 1,5ekoak izan beharko dute eta pdf formatuan aurkeztu behar da gutuna, ahal izanez gero. Motibazio-gutuna posta elektronikoz bidaliko da helbide honetara: [educacion@ecosfron.org](mailto:educacion@ecosfron.org)
- Gutunarekin batera, MgEk bidalitako inprimaki bat bete beharko da, joan-etorriak eta ostatua finantzatzeko behar diren datuekin. Inprimaki horretan, joan-etorrien gutxi gorabeherako kostua, garraibidea eta abar zehaztu beharko dira.

## **GARRANTZITSUA. Adierazi mezuaren gaia: Beste ekonomia bat martxan dago jardunaldietako motibazio-gutuna + izen-abizenak**

### Bekak emateko kontuan hartuko diren irizpideak:

- Gaiarekiko eta jardunaldietan parte hartzeko motibazioa.
- MgEko boluntario-talderen bateko kide izatea.
- Gizarte-mugimenduren batean, ikasle-elkarteren batean, gazte-elkarteren batean, auzo-elkarteren batean edo antzekoren batean sartuta egotea.
- Mugarik gabeko Ekonomialarien beste jarduera batzuetan (birtuala/aurrez aurrekoa) parte hartzeko prestutasuna.

### Bekek estaltzen dituzten gastuak:

- **Ostatua**

Ostatua Mugarik gabeko Ekonomialariak erakundeak erreserbatuko du Madrilgo zentzoko aterpetxe batean, partekatutako geletan. MgEk eta aterpetxeak erabakiko dute pertsona parte-hartzaileek zer gelatan hartuko duten ostatu.

Norbaitek ostaturik behar ez badu, onartuei bidaltzen zaien inprimakian adierazi beharko du.

- **Garraioa**

Joan-etorrietarako, gehienez ere 70 euroko finantzazioa emango da. **Ikasleak ostaturik behar ez badu, gehienez ere 100 €ko finantzazioa emango zaio.**

Pertsona parte-hartzaileak egingo ditu jardunaldietan parte hartzeko egin behar diren gestioak eta joan-etorrietarako erreserbaren aurretiko ordainketak. Gastua MgEka *posteriori* ordainduko du (jardunaldiak baino 10 egun geroago, gehienez ere), honako baldintza hauek betetzen badira:

- Turista-mailako autobuseko eta treneko joan-etorriak soilik finantzatuko dira (esaterako, ez da finantzatuko ALSaren “supra” kategorian).
- **Ez dira finantzatuko autoz egindako joan-etorriak** (ez gasolinarik, ez kilometrorik, ez partekatutako autorik; esaterako, blablacar). Behar diren frogagiriak ez badira aurkezten, MgEk ez ditu joan-etorriak finantzatuko.
- **Autobus- edo tren-txartel osoa aurkeztu beharko da; hau da, txartelean datu hauek agertu beharko dute:** izen osoa, abizenak eta NAN. Txartelak formatu elektronikoa izan dezake (posta elektronikoz bidal daiteke MgEra), edo originala izan daiteke, kutxatilan erosi bada (posta arruntez bidali beharko da MgEra).

## **Izena emateko epeak eta egutegia**

**Izena emateko azken eguna: 2017ko martxoaren 30a**

Mugarik gabeko Ekonomialariak Hauek finantzatzen dute

Izen-ematea esteka hauen bidez egingo da:

- UNEDeko online plataforma, esteka honetan:

<http://extension.uned.es/actividad/14016&codigo=JEEE>

edo

- Jardunaldietako webgunea, "ikasleak" atalean:

<http://ecosfron.org/otra-economia-esta-en-marcha-2017/>

**Onartuei jakinarazpena bidaltzeko azken eguna: 2017ko apirilaren 3an**

**Beka eskatzen duten pertsonen motibazio-gutuna bidaltzeko azken eguna: 2017ko apirilaren 4an**

**Bekadunei jakinarazpena bidaltzeko azken eguna: 2017ko apirilaren 6an**

Izen-ematea onartu den ala ez posta elektronikoz jakinaraziko da. Hautatutako pertsonen zerrenda bat egingo da, eta itzarote-zerrenda bat ere bai. Itzarote-zerrendako ikasle gehiago onartzen joango dira izen-emateen hurrenkeran, baldin eta hautatutako pertsonen artekoen batek jardunaldietan parte hartzeari uko egiten badio.